Espediente-zenbakia: 2023016 Harmonizatua

Kontratazioaren xedea: "BASQUE OPEN INDUSTRY 2023" kongresurako erakusketa eremua diseinatu, eraiki, muntatu, desmuntatu eta garraiatzeko zerbitzuak.

Dokumentua: Baldintza teknikoen plegua

1.- SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomi Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren menpeko SPRI–AGENCIA VASCA DE DESARROLLO EMPRESARIAL-en (*Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren*) (aurrerantzean, "**SPRI**") misioetako bat da Euskadiren berraktibazio ekonomikoa azkartzea izaera industrial markatu batekin, kalitatezko enplegua sortzeko eta baita ere aurre egiteko energia- eta ingurumen-eraldaketako, eraldaketa teknologiko-digitaleko eta eraldaketa demografiko-sozialeko erronkei. Berraktibazio hori aukera paregabea izan behar da produkzio-egituraren lehiakortasuna sendotzeko eta ingurumenarekin lotutako irizpideak integratzeko politika sektorial guztietan, baina ez irizpide baldintzatzaile gisa, baizik eta lehiakortasun-faktore bezala eta balioa sortzeko aukera gisa.

Betebehar hori gauzatzeko eta gizarteratzeko modu egoki bat Basque Open Industry kongresua egitea da, Euskadiko industria ehunak dituen erronken azterketa eta eztabaida sustatzearekin batera, gure eskaintza teknologikoaren erakusleiho izango den erakusketa eremua izango duen topaketa.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da "Basque Open Industry" kongresurako (aurrerantzean, "**BOI Kongresua**") auditorioa, standak, aretoak eta bestelako eremuak diseinatu, eraiki, muntatu, desmuntatu eta garraiatzeko zerbitzuak ematea.

Enpresa esleipendunak zerbitzu globala eman beharko du, eta auditorioa, standak, aretoak eta bestelako eremuak diseinatzeko, eraikitzeko, muntatzeko eta desmuntatzeko prozesu osoaren ardura izango du, baita Kongresurako erabiliko den espazio osoaren diseinua egiteko ardura ere.

Lizitatzaileek ondoren adieraziko diren item guztiak bete beharko dituzte nahitaez, eta, horrez gain, beste aukera, aldaera edo aldaketak ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Kontratuaren xede diren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan egingo dira. **BOI Kongresua**, 2023ko azaroaren 13an hasiko da eta azaroaren 15ean amaitu. BEC – BILBAO EXHIBITION CENTREn (aurrerantzean, "**BEC**") egingo da, Barakaldon.

Elementu guztiak ekitaldiaren aurreko egunetan muntatu beharko dira. BECeko 2. pabilioian. Espazioen alokairua ez dago lizitazio honen xede diren zerbitzuetan sartuta, baizik eta SPRIk kudeatuko du zuzenean.

3.- GAUZATU BEHARREKO ZERTZUEN ZEHAZTAPENA

Esleipendunak garatu eta gauzatu beharreko zereginak ondoren identifikatzen dira:

- **Auditorioa, standak, aretoak eta bestelako eremuak diseinatzea, ekoiztea, muntatzea eta desmuntatzea:**

Lehenik eta behin, Kongresua behar bezala garatzeko beharrezkoak diren espazioen balorazioa egingo da. Jarraian deskribatuko diren gune guztiek atzeko hormak eraman behar dituzte, SPRIk kasu bakoitzean zehaztuko dituen irudi eta logotipoekin. Guneen balorazioa egiterakoan SPRIk erabakiko du BECeko 2. pabilioiak dituen 15.000 metro karratuak erabiliko diren edota espazio txikiagoa erabiliko den.

Erabiltzen den espazioa erabiltzen dela, espazio guztiak egon behar du azoka-moketaz estalita.

Horiek horrela, lizitatzaileak ondorengo elementuen diseinua, ekoizpena, muntaia eta desmuntaia hartuko ditu bere barne, baita beharko diren rigginak ere:

- **Auditorioa:** 1.000 lagunentzako espazio itxia, kongresuaren inaugurazio eta amaiera ekitaldiak hartuko dituena eta jardunaldi txikiagoak hartzeko egokitu ahal izango dena.
- **Jardunaldi-aretoa:** 150 lagun hartuko dituen areto bat, kongresuan zehar egingo diren jardunaldiak hartuko dituena.
- **Harrerako standa:** 30 metro karratuko espazioa, pabilioian sartzen direnentzako harrera gune izango dena.

Gainera, betiere SPRIk berariaz eta aurretiaz horrela eskatzen badin badu, lizitatzaileak ondorengo elementu gehigarrien diseinua, ekoizpena, muntaia eta desmuntaia hartuko ditu bere barne, dagozkien bestelako rigginak ere:

- **120 metro karratuko 4 stand, honako ekimen hauentzako:**
  - Basque Digital Innovation Hub – BDIH
  - Basque Cybersecurity Centre – BCSC
  - Basque Research and Technology Alliance- BRTA
  - Basque Artificial Intelligence Centre – BAIC
- **BIND 4.0 eremua:** 2023 urtean programa honetan parte hartu duten 80 startupen erakusketa eremua.
- **BIND 4.0 alumni eremua:** 2022, 2021 eta 2020an programan parte hartu zuten 40 startupen erakusketa eremua.
- **Nazioartekotze eremua:** Basque Trade & Investment agentziaren nazioarteko sareko 20 ordezkarientzako eremua.
- **Speaker corner:** jardunaldi edo solasaldi txikiak egiteko eremu bat.
- **Atsedenerako tokiak:** erakusketa eremu osoan sakabanatuta hiru toki egokituko dira atseden hartzeko edota bapateko topaketak edo bilera txikiak egiteko.

Arestian aipaturiko espazioak, oro har, "**Elementuak**" izenpean izendatuak izango dira aurrerantzean.

➢ **Eraikuntza/ekoizpena eta muntaia**

Enpresa esleipenduna arduratuko da Elementu guztiak eraikitzeaz, eta ekitaldia baino bi egun lehenago koordinatu eta egingo du muntaia BECen. Era berean, behar diren probak egingo ditu Elementu guztiak behar bezala funtzionatzen dutela ziurtatzeko.

➢ **Langile laguntzaileak eta gutxi gorabeherako euskarri-sistemak**

Zerbitzuak behar bezala gauzatzeko nahikoa langile edo laguntzaile atxikiko dio enpresa esleipendunak kontratuari.

- **Ekitaldiaren ostekoa**

  Enpresa esleipendunak Elementu guztiak bildu, desmuntatu eta garraiatzeko lanak koordinatu eta gauzatuko ditu.

4. MEMORIA KONTZEPTUALA

BOI Kongresuaren irudi nagusia honako hau izango da:



Erakusketa eremuko elementu bakoitzak bere irudi propioa ere erabiliko du, beti ere Basque Open Industry irudi nagusiarekin elkarbiziz.

4.1.- Diseinua eta sormena.

BOI Kongresuko espazioaren diseinuak bat etorri beharko du Euskadiko industria-errealitatearekin. Horrenbestez, gune bakoitzaren diseinuak trasmititu beharko dituen ideia nagusiak honako hauek dira:

- Diseinu modernoa, erakargarria eta berritzailea, Euskadi abangoardista, moderno eta aurreratua islatzen duena.
- Abangoardiako teknologia: Euskadi herrialde industriala da nagusiki, non industria tradizionala eta industria aurreratuena elkarbizi diren, eta I+G+ba bihurtu da bere nortasunaren ikur nagusia bai estatuan, zein Europan eta munduko gainerako herrialdeetan.

4.2.- Kontzeptuak

Ikusizko komunikazio erakargarria: irudiekin hitz egitea, modu argi, zuzen eta zirraragarrian, ikus-identitate handiarekin.

Euskadi irudikatzen duten irudi handien aldeko apustua egin nahi da, kontu handiz hautatuak, beren kabuz hitz egiten dutenak.

Ikusizko komunikazioari dagozkion irudiak aldatzeko eskubidea beretzat gordetzen du SPRIk. Beharrezkoa izanez gero, kontratua esleitu ondoren, esleipendunaren esku jarriko du daukan argazki-artxiboa. Irudiak proposatutako euskarrian ekoiztea enpresa esleipendunaren kontura izango da beti.

Tradizioa eta abangoardia binomioa: Euskadi oraina, iragana eta etorkizuna da. Ez dago berrikuntzarik tradizio onik gabe. Stand-aren diseinuak tradizioaren, berrikuntzaren eta abangoardiaren arteko oreka argia transmititu behar du.

Altzariak: kalitatezkoak izango dira, osagai guztiak egoera onean egongo dira eta erakusketa eremuaren ildo nagusiarekin bat datorren diseinua izango dute altzari guztiek.

Espazio desberdinetan kokatzen diren armairuek eta ateek kalitatezko sarrailak izan beharko dituzte. Kongresua inauguratu aurreko egunean, esleipendunak standeko sarraila bakoitzaren giltzen kopiak eta standeko sarraila guztiak irekitzen dituzten 4 giltza maisu eman beharko dizkie SPRIk izendatutako pertsonei.

Argiztapena: argiztapena funtsezko elementua da, espazioari argitasuna emango diona eta espazio eta elementu ezberdinak indartuko dituena. Hori guztia proposamenean zehaztu beharko da.

Zorua: pabilioiko zorua moketa ez-labaingarriz egina beharko du izan, istripuak saihesteko. Gainera, irisgarritasun-baldintzak betetzen dituen sarbide-arrapalak jarri beharko dira. Proposamenean zehaztu beharko da, eta puntu hori betetzen ez duen oro baztertuko da.

Pintura: indarrean dagoen araudia beteko da. Lizitatzaileak, egoki iritziz gero, eremu guztietan erabili beharreko kalitate eta koloreen laginak sartu ahal izango ditu proposamenean.

4.3.- Espazioen banaketa eta Elementuen egitura eta edukiak

- **Auditorioa:** Pabilioiaren barruan eraikiko da eta honako elementu hauek izango ditu:
    - **Eskenatokia:** kongresuaren inaugurazioa eta itxiera ekitaldia hartzeko moduko beste toki izango duena.
    - **Eserlekuak:** 1.000 lagunentzako tokia izango du.
    - **Pantaila handia**
    - **Itxitura:** pabilioiko gainerako espaziotik bereiziko duen itxitura izango du eta sarrera/irteera egokia.
    - **Saio txikiagoetarako egokitua:** kongresuan zehar saio txikiagoak egiteko espazioa behar izanez gero, auditorioak aukera eman beharko du nolabait saio txikiago bat hartzeko.
- **Jardunaldi-aretoa:** Pabilioiaren barruan eraikiko da eta honako elementu hauek izango ditu:
    - **Eskenatokia:** kongresuaren barruan egingo diren jardunaldi, hitzaldi edota mahai-inguruak hartuko ditu.
    - **Eserlekuak:** 150/200 lagunentzako tokia izango du.
    - **Pantaila handia**, 150/200 pertsonek, aldi berean, erreproduzitzen den edukia ondo ikusteko modukoa.
    - **Itxitura:** pabilioiko gainerako espaziotik bereiziko duen itxitura izango du eta sarrera/ireteera egokia.
- **Harrerako standa:** BOI Kongresura ongietorria emango duen standa izango da, 30 metro karratuko tokia hartuko du (azalera hau aldatu egin daiteke, diseinatzaileek horrela proposatu eta SPRIk oniritzia ematen badio). Stand honen elementuak:
    - Kongresuaren **harrera gunea** izango da, eta bertan, kongresuko eduki guztien informazioa emateaz gain, bisitariei arreta ere eskainiko zaie. Harrera gisa funtzionatzeko lekurik egokienean kokatuko da, eta erakusmahai bat izango du, espazioaren neurrietara egokitua, bai eta

tabureteak ere. Aipatutako mahaiak biltegiratzeko aukera izango du, erresistentzia handiko apalekin, bi entxufe ere izango ditu eta giltzez itxiko diren ateak.
    - **Biltegia:** Kongresuan erabiliko diren materialak biltegiratzeko tokia izango da.
- **120 metro karratuko 4 stand** (BDIH, BCSC, BRTA, BAIC):
    - Stand bakoitzak harrerako mostradore bat izango du, aurreko aldean logotipoak izango dituena eta barruko aldean biltegiratzea, baita pare bat taburete eta entxufeak ere. Stand bakoitzean postu desberdinak egingo dira (ekimen bakoitzak zehaztuko du zenbat postu) eta postu bakoitzak mostradore bat, taburete bat eta entxufea izango du, baita atzekoaldeko kartela ere (kartel horren diseinua postuko ordezkari bakoitzak egin eta esleipendunaren esku utziko du).
    - **Gailuentzako euskarriak** (behar diren kasuetan).
    - **Bitrinak** (behar diren kasuetan)
    - **Biltegia:** materialak biltegiratzeko tokia izango da.
    - **Pantaila**, erreproduzitzen den edukia ondo ikusteko modukoa.
- **BIND 4.0 eremua: 80 postu.** 2023 urtean zehar programan parte hartu duten startup bakoitzak postu bat izango du eta postu bakoitzean, gutxienez, ondorengo elementuak izango ditu:
    - **Mahai altu bat.**
    - **Taburete bi.**
    - **Euskarri bat:** Bind 4.0 logoa eta startup bakoitzaren izena izango duena. Startup guztien izena tamaina berean jarri beharko da euskarri bakoitzean eta argi geratu beharko da Bind 4.0 programako parte hartzaile izan diren startupak direla.
    - **Globoak:** Bind 4.0 espazioaren ezaugarri bihurtu dira globoak (helioz beteak).
- **BIND 4.0 alumni eremua**: **40 postu.** Aurreko urteetan programan parte hartu duten startupentzako tokia izango da. Postu bakoitzean hau:
    - **Mahai bat.**
    - **Hiru aulki.**
    - **Euskarri bat:** Bind 4.0 logoa eta startup bakoitzaren izena izango duena. Startup guztien izena tamaina berean jarri beharko da euskarri bakoitzean eta argi geratu beharko da Bind 4.0 programako parte hartzaile izan diren startupak direla.
- **Nazioartekotze eremua: 20 postu.** Basque Trade & Investment agentziaren nazioarteko sareko 20 ordezkarientzako eremua. Postu bakoitzak, gutxienez, ondorengo elementuak izango ditu:
    - **Mahai bat.**
    - **Hiru aulki.**
    - **Atzealdeko horma, non ordezkatzen den herrialdearen izena jarriko den.**
- **Speaker corner:** jardunaldi edo solasaldi txikiak egiteko eremu bat. Eremu horrek, gutxienez, ondorengo elementuak izango ditu:
    - **Tarima txiki bat.**
    - **Atrila.**
    - **Pantaila bat,** erreproduzitzen den edukia ondo ikusteko modukoa.
    - **30 pertsona inguru esertzeko tokia.**

Atsedenerako tokiak: erakusketa eremu osoan sakabanatuta hiru toki egokituko dira atseden hartzeko edota bapateko topaketak edo bilera txikiak egiteko.

5. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN KONTURAKO BESTELAKO ZERBITZUAK

Atal honetan deskribatutako zerbitzu guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira, kontrakoa zehaztu ezean, eta, beraz, haren eskaintza ekonomikoan sartuta egongo dira. Era berean, enpresa esleipendunaren konturakoak izango diren zerbitzuek ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte:

- **Elektrizitatea:** arlo horretan indarrean dagoen araudia beteko da.

- **Argiztapena:** arestian deskribatutako espazioak argiztatzeko beharrezkoak diren elementuen hornidura eta instalazioa beharrezkoa izango da.

- **Ekipo teknikoak:** eremu desberdinetan espazio bat jarri beharko da beharrezko ekipo teknikoak instalatzeko, banaketa-guneak edo biltegiak oztopatu gabe. Ekipamendu horiek esleipendunak kontratatuko ditu. Ekipamendu horien barne egongo dira besteak beste: pantailak eta soinu-ekipoa (beharrezkotzat jotzen denean).

- **Sareak**: eremu desberdinen arteko sare-konexiorako ekipamenduaz arduratuko da esleipenduna.

- **Muntatzea eta desmuntatzea:** BOI Kongresua 2023ko azaroaren 13an zabalduko da, ordurako denak montatuta eta garbi egon beharko du. Itxi berriz, azaroaren 15ean eta beraz, egun horretan hasi beharko dira desmuntaketa lanak..

  Muntaketak eta desmuntaketak deskribatutako epeetan burutu beharko dira eta, edozein kasutan, SPRIk Kongresua hasi aurretik esleipendunari helaraziko dizkion baldintza eta eran. Enpresa esleipendunak hori betetzen ez badu, SPRIk beretzat gordetzen du kontratua bertan behera uzteko eta esleipendunari dagozkion kalte-ordainak erreklamatzeko eskubidea.

  Esleipendunaren kontura izango dira Elementuetako edozein eduki kargatzeko eta deskargatzeko beharrezkoak diren garabia eta bestelako baliabide osagarriak, bai eta orduaren erreserba eta hura alokatzeko beharrezko izapideak ere.

  BECeko 2.pabilioian BOI Kongresuak erabilitako esparrua guztiz garbi eta jasota entregatu beharko zaio BECeri, eta esleipendunaren kontura izango da zaborra eta obra-hondakinak leku egokietara garraiatzea.

- **Garbiketa.** Garbiketa sakona egin beharko du arestian aipaturiko elementuen muntaketa amaitzean eta Kongresua inauguratu aurretik.

- **Garraioa eta muntaketa- eta desmuntaketako langileen gastuak.** Enpresa esleipenduna arduratuko da azokara arteko garraioaz eraikuntzako osagai guztiak eta Elementu bakoitza osatzen duten eduki eta osagai guztiak eramateaz, eta bere kontura izango dira joan-etorrien eta bestelakoen

ondorioz sortutako gastuak eta, oro har, muntaketa- eta desmuntaketa-lanak egiteko lekualdatu behar duen enpresa esleipenduneko langileen dieta guztiak.

- **Aseguruak**. Esleipendunak bere kargura harpidetu beharko ditu beharrezkoak diren aseguru-polizak, gauzei edo erantzukizun zibilari kalte egitearen ondoriozko edozein arrisku estaltzeko (besteak beste: fabrikazioa, garraioa, muntaia, mantentze-lanak eta desmuntaketa).

6. IRAUNKORTASUNA

Diseinuan, garraioan, eraikuntzan, muntaian eta desmuntaketan, jasangarritasunaren funtsezko alderdiak hartu behar dira kontuan, hala nola:

- **Irisgarritasuna.** Espazio desberdinek bertara joaten den pertsona ororentzat irisgarria izan behar dute, eta, beraz, funtzio hori eragozten duen oztopo arkitektoniko oro ezabatuko da. (*Azoketako irisgarritasunari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu "guztiontzako biltzarrak eta azokak antolatzeko eskuliburua", Predif-ek argitaratua: urritu fisikoen estatuko plataforma adierazgarria www.predif.org – Argitalpenen atalaren barruan*).

- **Material jasangarriak.** Ingurumena errespetatzen duten material jasangarriak erabiltzea; material horiek ekodiseinuaren edo ingurumen-kudeaketaren ziurtagiriak izan ditzakete.

- **Hondakinak.** Lehiaketaren xedearekin lotutako jardueren ondorioz (diseinua, garraioa, eraikuntza, muntaia eta desmuntaketa) sortzen diren hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen kudeaketa zuzena.

- **Produktu toxikoak eta arriskutsuak**. Ahal den neurrian, produktu toxiko eta arriskutsuak erabiltzea saihestea, eta horien ordez ingurumenean eragin txikiagoa duten beste batzuk jartzea.

- **Energia.** Ahal den neurrian, energetikoki erangikorrak diren informatika-ekipoak, etxetresna elektrikoak eta argiztapen- eta klimatizazio-sistemak erabiltzea.

- **Ura.** Ahal den neurrian, ura aurrezteko sistemak erabiltzea, hala nola, txorrota monomandarrak, zulagailuak, aireztagailuak, emari-murriztaileak, etab.

- **Isurpenak.** Ahal den neurrian, kontsumo energetiko baxuak dituzten ibilgailuak erabiltzea, horri lotutako CO2 emisioak minimizatzeko.

7. LAN TALDEA

Proiektuari esleitutako lantaldea zerbitzuaren beharretara egokitu beharko da. Enpresa esleipendunak kontratuari baliabide egokiak ta nahikoak esleitu beharko dizkio kontratua behar bezala gauzatzeko. Kontratuari atxikitako taldeko kideek

proiektua garatzeko behar den kualifikazioa, prestakuntza eta esperientzia egiaztatu beharko dute.

Baloratuko da taldea profesional gehigarriz osatuta egotea profil desberdinetan, gaitasun osagarriak eta diziplina anitzekoak ematen dituztenak eta zereginak paraleloan garatzea ahalbidetzen dutenak, SPRIk beharrezkotzat jotzen duenean.

Esleitutako langileek gaitasun tekniko eta esperientzia nahikoa izan beharko dute proposatutakoaren izaera eta dimentsioko BOI Kongresua diseinatzen eta muntatzen, eta enpresa esleipendunaren mende egongo dira soilik.

Enpresa esleipendunak harremanetarako pertsona bat izendatu beharko du, SPRIrekin komunikazio guztiak egin ditzan. Esleipendunak konpromisoa hartzen du proiektuari langile gehiago gehitzeko, unean uneko beharren arabera, kontratatutako zerbitzua behar bezala gauzatzeko.

Proiektuko taldeak egindako lanak zuzenean gainbegiratuko ditu SPRIk, eta egokitzat jotzen dituen azalpenak eta informazioak eskatu ahal izango ditu kontratatutako lanak behar bezala egiten ari direla egiaztatzeko.

8. PROIEKTUAREN KOORDINAZIO OROKORRA ETA ZUZENDARITZA

Enpresa esleipendunak esperientzia duen pertsona bat izendatuko du proiektu honen koordinazio orokorrerako. Pertsona hori arduratuko da kontratua behar bezala gauzatzeko enpresa esleipendunak bere gain hartzen dituen baldintza-agiri honetako alderdi guzti-guztiak sartzeaz eta horien jarraipena egiteaz. Pertsona hori izango da SPRI eta SPRIk aukeratutako Idazkaritza Teknikoaren solaskidea.

SPRIri dagokio lanak etengabe eta zuzenean ikuskatzea eta zaintzea. Horretarako, esleipendunak lanaren edozein prozesu edo fase aztertzea erraztuko du. Esleipendunak eta SPRIk jarraipen-bileren egutegi bat zehaztuko dute, eta horietan parte hartu ahal izango dute proiektuarekin nolabaiteko lotura duten eragile edota erakundeetako ordezkariek, SPRIk horrela erabakitzen duenean.

SPRIk esleipendunari proiektua garatzeko beharrezkoa den informazioa emango dio eta berarekin lankidetzan arituko da beste batzuen informazio-iturrietarako sarbidea lortzeko.

Egin beharreko lanen zuzendaritza SPRIko ordezkari batek egingo du, koordinatzaile eta gainbegiratzaile lana egingo duelarik. Era berean, esleitutako proposamenaren gainean aldaketa edo moldaketarik egin nahi izanez gero, ezinbestekoa da SPRIren adostasuna izatea, zeinak lanen gidalerroak aldatu ahal izango dituen edozein momentutan.

Esleipendunak hornitutako material, altzari eta gainerako apaingarriak SPRIren iritziz egokiak ez badira edota eskatutako ezaugarriak betetzen ez badituzte, SPRIk horiek aldatzea eskatzeko eskubidea izango du, inolako kostu gehigarririk gabe.

9. KONFIDENTZIALTASUNA ETA LANAREN JABETZA

BOI Kongresuaren espazioaren diseinua SPRIren jabetza esklusiboa izango da, eta SPRIk erabili edo berregokitu ahal izango du beste ekitaldi edo ekintza batzuetarako,

baina horrek ez du esan nahi enpresa esleipenduna kontratatu behar denik, ezta hura erabiltzeagatik kanonik ordaindu beharko duenik ere.

Era berean, informazio oro konfidentziala izango da, eta ezin izango da argitaratu, ez osorik, ez zati batean, edo beste edozein modutan erabili SPRIren berariazko eta idatzizko baimenik gabe.

Esleipendunak ezin izango du, inola ere, proiektuei buruzko adierazpen publikorik egin, SPRIren berariazko baimenik gabe.

10. KONTRATUA GAUZATZEKO HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarritako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubideari lotuta dago, azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko legeak, euskararen erabilera normalizatzeko denak arautzen duena.

Enpresa esleipendunak kontratu honen xede den zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan (euskaraz eta gaztelaniaz) eskaintzeko gaitasuna izan eta frogatu beharko du.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintza da, eta ez betetzeak, kontratu honetako beste edozein klausula ez betetzerako oro har aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Horrez gain, atzerriko beste hizkuntza batzuk erabiltzeko gaitasuna baloratuko da.